



## AMAIERAKO TXOSTENA 2024KO MARTXOA

**“EPIDEMIOLOGIAKO ZERBITZU  
ESPEZIALIZATUAK, GIPUZKOAKO INGURUMEN  
GUNEA MARTXAN EGON DEN LEHENENGO  
LAU URTEETAN (2020/04-HH-ZE)”**

**2. ILDOA:  
KUTSATZAILEEKIKO ESPOSIZIOA EBALUATZEA,  
BIOMARKATZAILEEN ANALISITIK ABIATUTA**

**Jesús Ibarluzea Maurolagotia  
Ikertzaile nagusia  
Ingurumen Epidemiologiako eta Haur Garapeneko Ikerketa Taldea  
CIBERESP (Sareko Ikerketa Biomedikorako, Epidemiologiarako eta Osasun  
Publikorako Zentroa, Carlos III.a Osasun Institutua)**

## EDUKIAK

<b>LABURPENA .....</b>	<b>1</b>
<b>1. SARRERA .....</b>	<b>2</b>
<b>1.1 Metalak .....</b>	<b>3</b>
<b>1.2 Konposatu Organiko Iraunkorrik (COP).....</b>	<b>3</b>
<b>1.2.1. Dioxinak eta furanoak (PCDDak/PCDFak) .....</b>	<b>4</b>
<b>1.2.2 Bifenilospolikloratuak .....</b>	<b>5</b>
<b>1.2.3. Baloikidetasun toxikoaren faktoreak (TEF) eta baloikidetasun toxikoaren balioka (TEQ) ....</b>	<b>6</b>
<b>1.2.4. Iturri sortzaileak .....</b>	<b>7</b>
<b>1.2.5 Dioxinak, PCBak eta elikadura .....</b>	<b>7</b>
<b>1.3 Osasunaren gaineko ondorioak.....</b>	<b>8</b>
<b>2. HELBURUAK.....</b>	<b>11</b>
<b>3. METODOAK .....</b>	<b>12</b>
<b>3.1 Aztertutako populazioa .....</b>	<b>12</b>
<b>3.2 Errekutatze-fasea .....</b>	<b>12</b>
<b>3.3 Aldagai sozioekonomikoaren eta dietaren berri jasotzea .....</b>	<b>13</b>
<b>3.4 Legin biologikoak bildu, jaso eta gordetzea .....</b>	<b>14</b>
<b>3.5 Zehaztapen analitikoak.....</b>	<b>15</b>
<b>3.5.1 Dioxinak, furanoak eta PCBak .....</b>	<b>15</b>
<b>3.5.2 Metalak .....</b>	<b>16</b>
<b>3.5.3 Kreatinina .....</b>	<b>17</b>
<b>3.6 Lagini eta informazio pertsonalaren zaintza-katea .....</b>	<b>17</b>
<b>4. GIGEBI MARTXAN JARRI ONDORENGO ALDIKO EMAITZAK .....</b>	<b>19</b>
<b>4.1 Partaideen ezaugarriak .....</b>	<b>19</b>
<b>4.2 Metalak, gernuan, serumean eta odolean .....</b>	<b>24</b>
<b>4.3 Dioxinak, furanoak eta PCBak, serumean .....</b>	<b>30</b>
<b>5. GIGEBI MARTXAN JARRI AURREKO ALDIKO ETA GIGEBI MARTXAN JARRI ONDORENGO ALDIKO ERANTZUNEN KONPARAKETA.....</b>	<b>41</b>

<b>5.1. GIGEBI martxan jarri aurreko eta ondorengo emaitzen arteko konparaketa parte hartu duten subjektu guztiekin.....</b>	<b>41</b>
<i>5.1.1. Metalak gernuan, serumean eta odolean .....</i>	41
<i>5.1.2. Dioxinak, furanoak eta PCBak, serumean .....</i>	51
<i>5.1.3. Metalen eta PCDD/F eta dl-PCBen laburpena lagin biologikoetan.....</i>	66
<b>5.2. GIGEBI martxan jarri aurreko eta ondorengo emaitzen arteko konparaketa bi aldietan bat zetozen subjektuak soilik kontutan hartuta .....</b>	<b>67</b>
<i>5.2.1. Metalak gernuan, serumean eta odolean .....</i>	67
<i>5.2.2. Dioxinak, furanoak eta PCBak, serumean .....</i>	77
<i>5.2.3. Metalen eta PCDD/F eta dl-PCBen laburpena lagin biologikoetan.....</i>	92
<b>5.3. Emaitzen konparaketa, parte-hartzaile guztiak eta bat datozenak bakarrik kontuan hartuta .....</b>	<b>93</b>
<b>6. EZTABAINA .....</b>	<b>94</b>
<i>6.1. Aldien arteko konparaketa .....</i>	94
<i>6.2. Generoa, adina eta eremuaren araberako patroiak .....</i>	98
<b>7. ONDORIOAK .....</b>	<b>100</b>
<b>BIBLIOGRAFIA .....</b>	<b>101</b>

## ERANSKINAK

- 2.1. ERANSKINA. Euskadiko sendagaien ikerketarako batzorde etikoaren txostena (CElm-E)
- 2.2. ERANSKINA. Galdetegia
- 2.3. ERANSKINA. Metalen laborategiko emaitzak pdf formatuan
- 2.4. ERANSKINA. PCDDF eta dl-PCB-en laborategiko emaitzak pdf formatuan
- 2.5. ERANSKINA. 2. Ildoko datu basea

## TAULA-AURKIBIDEA

1. Taula. Aztertzeko populazioaren udalerriak .....	12
2. Taula. Analizaturiko lagin-mota bakoitzaren detekzio-mugak (LOD).....	17
3. Taula. Leginaren ezaugarriak. Aldagai antropometrikoak, sozioekonomikoak eta ohiturak (N=226).....	19
4. Taula. Elikagai-kontsumoa (N=226).....	21
5. Taula. Bertako produktuen kontsumoa (N=226).....	24
6. Taula. Ekoizpen ekologikoa (N=226) .....	24
7. Taula. Aztarna-elementuak, gernuan (balio gordinak eta kreatininaren arabera doituak), serumean eta guztizko odolean. Detekzio-mugak (LOD), LODren azpitik dauden balioen kopurua (%LOD), batezbesteko geometrikoak (BG) (%95KT), eta mediana eta kuartilarteko tarteak adierazten dira. ....	25
8. Taula. Aztarna metalen kontzentrazioa gernuan (kreatininaren arabera doitua), serumean eta guztizko odolean, sexuaren arabera. Detekzio mugatik beherako balioak dituen lagin-kopuruaren ehunekoa % 50etik beherakoa den kasuetan, batezbesteko geometrikoak (BE) kalkulatu dira. Batezbesteko geometrikoen balioak adierazten dira, % 95eko KTarekin. ....	26
9. Taula. Aztarna metalen kontzentrazioa gernuan (kreatininaren arabera doitua), serumean eta guztizko odolean, adin taldearen arabera. Detekzio-mugatik beherako balioak dituen lagin-kopuruaren ehunekoa % 50etik beherakoa den kasuetan, batezbesteko geometrikoak (BG) kalkulatu dira. Batezbesteko geometrikoen balioak adierazten dira, % 95eko KTarekin. ....	27
10. Taula. Aztarna metalen kontzentrazioa gernuan (kreatininaren arabera doitua), serumean eta guztizko odolean, partaidea bizi den udalerriaren arabera. Detekzio-mugatik beherako balioak dituen lagin-kopuruaren ehunekoa % 50etik beherakoa den kasuetan, batezbesteko geometrikoak (BG) kalkulatu dira. Batezbesteko geometrikoen balioak adierazten dira, % 95eko KTarekin.....	28
11. Taula. Aztarna-malen kontzentrazioa gernuan (kreatininaren arabera doitua), serumean eta guztizko odolean, bizilekuaren eremuarekin alderatuta. Eraginpean dagoen eremuak Usurbil eta Lasarte udalerriak hartzen ditu, tarteko eremuak Andoain udalerria eta kontrol-eremuak Ordizia eta Beasain udalerriak. Detekzio-mugatik beherako balioak dituen lagin-kopuruaren ehunekoa % 50etik beherakoa den kasuetan, batezbesteko geometrikoak (BG) kalkulatu dira. Batez besteko geometrikoen balioak adierazten dira, % 95eko KTarekin. ....	29
12. Taula. Serumean aztertutako dioxinak, furanoak eta PCBak. Laginen guztizko kopurua (N), detekzio-mugatik beherako balioen kopurua (LOD), LODetik beherako balioen ehunekoa (%), batezbesteko geometrikoak (BG) % 95eko KTarekin, eta mediana eta horien kuartilarteko tarteak pg/g eta pgTEQ/g-tan (OME 2005).....	32
13. Taula. Dioxinen, furanoen eta PCBen kontzentrazioak serumean, sexuaren arabera. Batezbesteko geometrikoen (BG) balioak adierazten dira, kontzentrazioen % 95eko KTarekin, pgTEQ/g-tan (OME 2005).....	34
14. Taula. Dioxinen, furanoen eta PCBen kontzentrazioak serumean, tertziletako adinaren arabera. Batezbesteko geometrikoen (BG) balioak adierazten dira, kontzentrazioen % 95eko KTarekin, pgTEQ/g-tan (OME 2005).....	35
15. Taula. Dioxinen, furanoen eta PCBen kontzentrazioak serumean, bizi diren udalerriaren arabera. Batezbesteko geometrikoen (BG) balioak adierazten dira, kontzentrazioen % 95eko KTarekin, pgTEQ/g-tan (OME 2005).....	36

16. Taula. Dioxinen, furanoen eta PCBen kontzentrazioak serumean, bizi-eremuaren arabera. Eraginpeko eremuak Usurbil eta Lasarte udalerriak hartzen ditu, tarteko eremuak Andoain udalerria eta kontrol-eremuak Ordizia eta Beasain udalerriak. Batez besteko geometrikoen (BG) balioak adierazten dira, kontzentrazioen % 95eko KTarekin, pgTEQ/g-tan (OME 2005). ..... 37
17. Taula. GIGEBI martxan jarri aurreko eta ondorengo aldian parte hartu duten subjektu guztien kopurua eta ehunekoa, bizi den udalerriaren, generoaren eta adinaren arabera. ..... 41
18. Taula. Gernuan (kreatininaren arabera doitua), serumean eta guztizko odolean analizatutako aztarna metalak, GIGEBI martxan jarri aurreko eta ondorengo aldian parte hartu duten subjektu guztiak kontuan hartuta. Batez besteko geometrikoak (BG) % 95eko KTarekin, eta mediana eta horien kuartilarteko tartea adierazten dira. Batez bestekoak kalkulatu dira, detekzio mugatik beherako balioak dituzten lagin-kopuruaren ehunekoa % 80tik beherakoa den kasuetan. Balio nabarmen handiagoak laranjaz adierazi dira, eta txikiagoak berdez..... 42
19. Taula. Gernuan (kreatininaren arabera doitua), serumean eta guztizko odolean analizatutako aztarna metalak, GIGEBI martxan jarri aurreko eta ondorengo aldian parte hartu duten subjektu guztiak kontuan hartuta, sexuaren arabera. Batez besteko geometrikoak (BG) % 95eko KTarekin, eta mediana eta horien kuartilarteko tartea adierazten dira. Batez bestekoak kalkulatu dira, detekzio mugatik beherako balioak dituzten lagin-kopuruaren ehunekoa % 80tik beherakoa den kasuetan. Balio nabarmen handiagoak laranjaz adierazi dira, eta txikiagoak berdez..... 43
20. Taula. Gernuan (kreatininaren arabera doitua), serumean eta guztizko odolean analizatutako aztarna metalak, GIGEBI martxan jarri aurreko eta ondorengo aldian parte hartu duten subjektu guztiak kontuan hartuta, adin taldearen arabera. Batez besteko geometrikoak (BG) % 95eko KTarekin, eta mediana eta horien kuartilarteko tartea adierazten dira. Batez bestekoak kalkulatu dira, detekzio mugatik beherako balioak dituzten lagin-kopuruaren ehunekoa % 80tik beherakoa den kasuetan. Balio nabarmen handiagoak laranjaz adierazi dira, eta txikiagoak berdez..... 44
21. Taula. Gernuan (kreatininaren arabera doitua), serumean eta guztizko odolean analizatutako aztarna metalak, udalerriaren arabera, GIGEBI martxan jarri aurreko eta ondorengo aldian parte hartu duten subjektu guztiak kontuan hartuta. Batez besteko geometrikoak (BG) % 95eko KTarekin, eta mediana eta horien kuartilarteko tartea adierazten dira. Batez bestekoak kalkulatu dira, detekzio mugatik beherako balioak dituzten lagin-kopuruaren ehunekoa % 80tik beherakoa den kasuetan. Balio nabarmen handiagoak laranjaz adierazi dira, eta txikiagoak berdez..... 46
22. Taula. Gernuan (kreatininaren arabera doitua), serumean eta guztizko odolean analizatutako aztarna metalak, azterketa eremuaren arabera, GIGEBI martxan jarri aurreko eta ondorengo aldian parte hartu duten subjektu guztiak kontuan hartuta. Batez besteko geometrikoak (BE) % 95eko KTarekin, eta mediana eta horien kuartilarteko tartea adierazten dira. Batez bestekoak kalkulatu dira, detekzio mugatik beherako balioak dituzten lagin-kopuruaren ehunekoa % 80tik beherakoa den kasuetan. Balio nabarmen handiagoak laranjaz adierazi dira, eta txikiagoak berdez..... 49
23. Taula. Dioxinen, furanoen eta dl-PCBen kontzentrazioak serumean, GIGEBI martxan jarri aurreko eta ondorengo aldian parte hartu duten subjektu guztiak kontuan hartuta. Batez besteko geometrikoak (BG) % 95eko KTarekin, eta mediana eta horien kuartilarteko tartea adierazten dira. Balio nabarmen handiagoak laranjaz adierazi dira, eta txikiagoak berdez ..... 52
24. Taula. Dioxinen, furanoen eta dl-PCBen kontzentrazioak serumean, sexuaren arabera, GIGEBI martxan jarri aurreko eta ondorengo aldian parte hartu duten subjektu guztiak kontuan hartuta. Batez besteko geometrikoak (BG) % 95eko KTarekin, eta mediana eta horien kuartilarteko tartea adierazten dira. Balio nabarmen handiagoak laranjaz adierazi dira, eta txikiagoak berdez. .... 53

- |  |    |
|--|----|
| 25. Taula. Dioxinen, furanoen eta dl-PCBen kontzentrazioak serumean, adin taldearen arabera, GIGEBI martxan jarri aurreko eta ondorengo aldian parte hartu duten subjektu guztiak kontuan hartuta. Batezbesteko geometrikoak (BG)% 95eko KTarekin, eta mediana eta horien kuartilarteko tartea adierazten dira. Balio nabarmen handiagoak laranjaz adierazi dira, eta txikiagoak berdez.....       | 55 |
| 26. Taula. Dioxinen, furanoen eta dl-PCBen kontzentrazioak serumean, udalerriaren arabera, GIGEBI martxan jarri aurreko eta ondorengo aldian parte hartu duten subjektu guztiak kontuan hartuta. Batezbesteko geometrikoak (BG) % 95eko KTarekin, eta mediana eta horien kuartilarteko tartea adierazten dira. Balio nabarmen handiagoak laranjaz adierazi dira, eta txikiagoak berdez.....        | 58 |
| 27. Taula. Dioxinen, furanoen eta dl-PCBen kontzentrazioak serumean, azterketa eremuaren arabera, GIGEBI martxan jarri aurreko eta ondorengo aldian parte hartu duten subjektu guztiak kontuan hartuta. Batezbesteko geometrikoak (BG) % 95eko KTarekin, eta mediana eta horien kuartilarteko tartea adierazten dira. Balio nabarmen handiagoak laranjaz adierazi dira, eta txikiagoak berdez..... | 63 |
| 28. Taula. Gernuan (kreatininaren arabera doitua), serumean eta guztizko odolean analizatutako aztarna metalen laburpen taula, baita serumean aztertutako dioxinak, furanoak eta dl-PCBak ere, GIGEBI martxan jarri aurreko eta ondorengo aldian parte hartu duten subjektu guztiak kontuan hartuta. Balio nabarmen handiagoak laranjaz adierazi dira, eta txikiagoak berdez.....                  | 66 |
| 29. Taula. Bi aldietan bat zetozentarte-hartzaleen ezaugarriak.....  | 67 |
| 30. Taula. Gernuan (kreatininaren arabera doitua), serumean eta guztizko odolean analizatutako aztarna metalak, GIGEBI martxan jarri aurreko eta ondorengo aldian bat zetozentarte-hartzaleen ezaugarriak.....   | 68 |
| 31. Taula. Gernuan (kreatininaren arabera doitua), serumean eta guztizko odolean analizatutako aztarna metalak, sexuaren arabera, GIGEBI martxan jarri aurreko eta ondorengo aldian bat zetozentarte-hartzaleen ezaugarriak.....   | 69 |
| 32. Taula. Gernuan (kreatininaren arabera doitua), serumean eta guztizko odolean analizatutako aztarna metalak, adin taldearen arabera, GIGEBI martxan jarri aurreko eta ondorengo aldian bat zetozentarte-hartzaleen ezaugarriak.....   | 70 |
| 33. Taula. Gernuan (kreatininaren arabera doitua), serumean eta guztizko odolean analizatutako aztarna metalak, udalerriaren arabera, GIGEBI martxan jarri aurreko eta ondorengo aldian bat zetozentarte-hartzaleen ezaugarriak.....   | 72 |
| 34. Taula. Gernuan (kreatininaren arabera doitua), serumean eta guztizko odolean analizatutako aztarna metalak, aztertutako eremuaren arabera, GIGEBI martxan jarri aurreko eta ondorengo aldian bat zetozentarte-hartzaleen ezaugarriak.....  | 73 |

<i>aldian bat zetozentzitako subjektuak soilik kontuan hartuta. Batezbesteko geometrikoak (BG) % 95eko KTarekin, eta mediana eta horien kuartilarteko tarteak adierazten dira. Batez bestekoak kalkulatu dira, detekzio mugatik beherako balioak dituzten lagin-kopuruaren ehunekoa % 80tik beherakoa den kasuetan. Balio nabarmen handiagoak laranjaz adierazi dira, eta txikiagoak berdez. .... 75</i>	
<i>35. Taula. Dioxinen, furanoen eta dl-PCBen kontzentrazioak serumean, GIGEBI martxan jarri aurreko eta ondorengo aldian bat zetozentzitako subjektuak soilik kontuan hartuta. Batezbesteko geometrikoak (BG) % 95eko KTarekin, eta mediana eta horien kuartilarteko tarteak adierazten dira. Balio nabarmen handiagoak laranjaz adierazi dira, eta txikiagoak berdez. .... 78</i>	
<i>36. Taula. Dioxinen, furanoen eta dl-PCBen kontzentrazioak serumean, sexuaren arabera, GIGEBI martxan jarri aurreko eta ondorengo aldian bat zetozentzitako subjektuak soilik kontuan hartuta. Batezbesteko geometrikoak (BG) % 95eko KTarekin, eta mediana eta horien kuartilarteko tarteak adierazten dira. Balio nabarmen handiagoak laranjaz adierazi dira, eta txikiagoak berdez. .... 79</i>	
<i>37. Taula. Dioxinen, furanoen eta dl-PCBen kontzentrazioak serumean, adinaren arabera, GIGEBI martxan jarri aurreko eta ondorengo aldian bat zetozentzitako subjektuak soilik kontuan hartuta. Batezbesteko geometrikoak (BG) % 95eko KTarekin, eta mediana eta horien kuartilarteko tarteak adierazten dira. Balio nabarmen handiagoak laranjaz adierazi dira, eta txikiagoak berdez. .... 81</i>	
<i>38. Taula. Dioxinen, furanoen eta dl-PCBen kontzentrazioak serumean, udalerriaren arabera, GIGEBI martxan jarri aurreko eta ondorengo aldian bat zetozentzitako subjektuak soilik kontuan hartuta. Batezbesteko geometrikoak (BG) % 95eko KTarekin, eta mediana eta horien kuartilarteko tarteak adierazten dira. Balio nabarmen handiagoak laranjaz adierazi dira, eta txikiagoak berdez. .... 84</i>	
<i>39. Taula. Dioxinen, furanoen eta dl-PCBen kontzentrazioak serumean, azterketa eremuaren arabera, GIGEBI martxan jarri aurreko eta ondorengo aldian bat zetozentzitako subjektuak soilik kontuan hartuta. Batezbesteko geometrikoak (BG) % 95eko KTarekin, eta mediana eta horien kuartilarteko tarteak adierazten dira. Balio nabarmen handiagoak laranjaz adierazi dira, eta txikiagoak berdez. .... 89</i>	
<i>40. Taula. Gernuan (kreatininaren arabera doitua), serumean eta guztizko odolean analizatutako aztarna metalen laburpen taula, baita serumean aztertutako dioxinak, furanoak eta dl-PCBak ere, GIGEBI martxan jarri aurreko eta ondorengo aldian bat zetozentzitako subjektuak soilik kontuan hartuta. Balio nabarmen handiagoak laranjaz adierazi dira, eta txikiagoak berdez. .... 92</i>	
<i>41. Taula. Gernuan (kreatininaren arabera doitua), serumean eta guztizko odolean analizatutako aztarna metalen laburpen taula, baita serumean aztertutako dioxinak, furanoak eta dl-PCBak ere, GIGEBI martxan jarri aurreko eta ondorengo aldian parte hartu duten subjektu guztiak kontuan hartuta eta bi fasean bat zetozentzitako subjektuak soilik kontuan hartuta. Balio nabarmen handiagoak laranjaz adierazi dira, eta txikiagoak berdez. .... 93</i>	

## IRUDIEN AURKIBIDEA

1. Irudia. a) Dioxina (PCDD) eta b) furanoen (PCDF) egitura kimikoa.....	4
2. Irudia. PCBen egitura kimikoa .....	6
3. Irudia. Dioxina motako konposatu bakoitzaren ekarpena PCDD/F + dl-PCBen baturari kontzentrazioetan (pg/g gantz) (goiko aldean) eta TEQetan (pgTEQ/g gantz) (beheko aldean). .....	38
4. Irudia. Dioxinen eta furanoen kide bakoitzaren ekarpena PCDD/F baturari kontzentrazioetan (pg/g gantz) eta TEQetan (pgTEQ/g gantz) (beheko aldean). .....	39
5. Irudia. dl-PCB kide bakoitzaren ekarpena dl-PCB baturari kontzentrazioetan (pg/g gantz) eta TEQetan (pgTEQ/g gantz) (beheko aldean). .....	40

## LABURPENA

Azterlaneko ildo honen helburua izan da kutsatzaileen maila (dioxina-furano, PCB eta aztarna-elementuak) zeharka hiru populazio desberdinen odol- eta gernu-laginetan zehaztea. Populazioak dispertsio-ereduen arabera definitu dira: bat, instalazioaren eraginpean dagoela jotzen da (Lasarte eta Usurbil); beste bat, tartekotzat jotzen da (Andoain), eta hirugarrena, kontrol-eremua da, aztertuko den iturritik urrutti (Ordizia eta Beasain).

Serumeko dioxinen, furanoen eta PCBen mailari dagokionez, ez zen desberdintasun esanguratsurik aurkitu parte-hartzaleak bizi ziren udalerrien artean, ezta azterketa eremuen artean ere ( $\Sigma$ PCDD/F+dl-PCB WHO-TEQ 2005: 10.83 pgTEQ/g, 11.70 pgTEQ/g eta 10.01 pgTEQ/g). Metalei dagokienez, ez zen alde esanguratsurik ikusi udalerrien artean, ez eta eremuen artean ere (eraginpeko eremua, tarteko eremua eta kontrola), serumeko Mn-ak izan ezik, zeinak kontzentrazio nabarmen handiagoak baitzituen tarteko eremuan (1.07 (1.01; 1.12 µg/L) eraginpeko eremuarekin alderatuta (0.97 (0.93; 1.01) µg/L) eta kontrolarekin alderatuta (0.90 (0.87; 0.94) µg/L). Dioxinen, furanoen eta dl-PCBen mailak hainbat herrialdetan egindako azterlan gehienetan esposizio gabeko biztanleriarentzat adierazitakoak antzekoak izan ziren, eta aipatutakoak baino txikiagoak erraustegien inguruko eta urruneko eremuetan. Metal-mailak, oro har, beste herrialde batzuetan eta EAEn aurrez egindako beste azterlan batzuetan aurkitutakoak baino txikiagoak edo antzekoak izan ziren.

## 1. SARRERA

Biomarkatzaileak adierazle biologikoak dira, eta ingurumen-kutsatzaileekiko esposizioa zenbaterainokoa izan den adierazten dute. Indikatzaile hauek, gizakiak ingurumen-kutsatzaileekiko duen esposizioa balioesteko aukera emateaz gain, esposizio horrekin lotu daitezkeen osasunerako eragin potentzialak aztertzeko aukera ere ematen dute (Louro et al., 2019; Angerer, 2007). Izen ere, Europar Batasuneko eta munduko herrialde askotan biomonitorizazio-programak egiten dira, aldiro-aldiro populazio orokorraren lagin biologikoak jasoz (odola, gernua, ilea ...), eta kutsatzaile kezkagarrienen mailak zehatzuz. Ezagunenen artean daude Giza Biomonitorizazioaren Europako Ekimena edo HBM4EU (<https://www.hbm4eu.eu/>), Europar Batasuneko (EB) 30 herrialdek parte hartzen dutena, eta Osasun eta Nutrizioaren Azterketari buruzko Inuesta Nazionala edo NHANES (<https://www.cdc.gov/nchs/nhanes/index.htm>), Estatu Batuetan egiten dena.

Populazioan kutsatzaileak izan daitezkeen hainbat jardueren ondorioak aztertzeko, azterlan askotan kutsatzaileekiko esposizioa biomarkatzaileen bidez ebaluatu da (Agramunt et al., 2005; Fierens et al., 2007; Reis et al., 2007a, 2007b; Schuhmacher et al., 2002; Ferré-Huguet et al., 2009; Zubero et al., 2010, 2011, 2017; Ranzi et al., 2013). Jarduera horietako bat hiri-hondakinak erraustea da. Hiri-hondakinak errausteak kezka sortzen du herritarrengan, isurien eraginpean egoteak osasunean eragin ditzakeen ondorioak direla eta. Horien artean, erre kuntza-prozesuan sortzen diren hainbat substantzia kutsatzaile nabamentzen dira, hala nola metal astunak, poliklorodibenzo-p-dioxinak (PCDDak), poliklorodibenzofuranoak (PCDFak) eta bifenilospolikloratuak (PCBak) (Kaleka and Thind, 2020; Zhou & Liu, 2018; Quaß, 2004). 80ko hamarkadan eta 90eko hamarkadaren hasieran, dioxinak sortzen zituzten iturri nagusiak hondakinen erraustegiak ziren (Jones et al., 1993; Eduljee et al., 1996; Quaß et al., 2004; Kim et al., 2001; Burns et al., 2010). Gaur egun, erraustegi modernoek hondakinen tratamendu eraginkorrik burutzeko metodoak dituzte, eta beraz, dioxinen isuriak kontrolatzeko unean eraginkorragoak dira (Giugliano et al., 2002; Nzihou et al., 2012; Parera et al., 2013). Hala ere, biztanleek instalazio horiei buruz dituzten kezkak bere horretan dirau (Subiza-Perez et al., 2020), beraz, erabakigarria da instalazio horiek hurbileko biztanlegoan eta ingurumenean duten inpaktu-maila ezagutzea.

Instalazio horiek sortutako emisioekiko esposizioak herritarren osasunean epe luzera izan ditzakeen ondorioei dagokienez, azterketa gehienak ugalketa-osasunean, garapenean, arnasketa-sisteman eta minbizian izandako ondorioetan oinarritu dira. Azterlan epidemiologiko

horiek ez dute erakusten osasun-ondorioen eta hiri-hondakin solidoak tratatzeko instalazioen ingurueta bizi diren populazioen arteko elkarrekintzarik.

### 1.1 Metalak

Hiri-hondakinak balorizatzeko instalazioek (HHBI) isuritako kutsatzaileen artean metal astunak daude, hala nola beruna (Pb), kadmioa (Cd), kromoa (Cr) eta merkurioa (Hg) (Chang et al., 2003). Komunitate zientifikoak metal astunak askotan ikertu ditu, kutsatzaile horien eraginpean egoteak gizakien osasunari erasan ahal diolako (Hou et al. 2019; Jan et al., 2015). Biodegradagarriak ez direnez, izaki bizidunetan biometatu egiten dira eta ondorioz, elika-katean ere bai (Briffa et al., 2020; Llobet, 2003).

Zenbait ikerketetan metal horien mailak erraustegietatik gertu bizi diren populazio orokorraren lagin biologikoetan zehaztu ziren (Kurtio et al., 1998; González et al., 2000; Domingo et al., 2001; Schuhmacher et al., 2002; Agramunt et al., 2003; Serra-Prat et al., 2004; Reis et al., 2007b; Fierens et al., 2007; Zubero et al., 2010; Martorell et al., 2015; Deng et al., 2016; Gatti et al., 2017; Li et al., 2017). Azterlan horien emaitzek ez zuten erakutsi denboran zehar esposizio-mailak igo zirenik.

### 1.2 Konposatu Organiko Iraunkorrek (COP)


Konposatu organiko iraunkorrek (COP) ingurumenean irauten dute denbora luzez, prozesu fotolitiko kimikoen eta biologikoen bidez degradatzen zailak baitira (Fiedler, 2002). Mantso degradatzen direnez, urrun garraiatuak izan daitezke airearen edo uraren bidez. Biometatu egiten dira lurreko eta uretako ekosistemetan, kontzentrazioak gora eginez elika-katean maila trofiko bakotzean gora egin ahal, hori dela eta, nabarmen eraginez gizakien osasunean eta ingurumenean (Jacob, 2013).

COPak sortzen dituzten iturri natural asko badago ere, esaterako sumendien erupzioak, kontrolatu gabeko suteak eta bide biosintetiko batzuk, konposatu horien iturri nagusia giza jarduerak dira (El-Shahawi et al., 2010), hala nola industria (farmazeutikoa eta kimikoa) eta nekazaritza (pestizidak) (Ritter eta Arbuckle, 2007). COP konposatuek gizakien osasunean eta ingurumenean eragiten dituzten kalteak direla eta, Estokolmon (Suedia) 2001eko maiatzean, 127 herrialdeek Nazio Batuen hitzarmen bat sinatu zuten munduan gehien erabiltzen diren eta

gizaki eta animalietan kantzerra edo sortzetikoa akatsak sortzen dituzten hamabi substantzia toxikoen produkzioa debekatu edo murritzeko. Zerrenda honek pestizidak (aldrina, klordano, dieldrina etab.), PCBak, dioxinak, furanoak, sugar moteltaileak (pentabromodifenil eterra eta hexabromobifeniloa), surfaktanteak eta per eta polifluoroalokatutako substantziak (PFAS) jasotzen ditu. Bestalde, kutsataile organiko iraunkorrei buruzko 850/2004 (EE) Erregelamendua Stockholmeko Hitzarmenari lotutako substantzien ekoizpena, merkaturatzea eta erabilera mugatu egiten du.

### **1.2.1. Dioxinak eta furanoak (PCDDak/PCDFak)**

Dioxina eta furanoak COP multzoa dira, bi eraztun bentzeniko dituzte eta eraztun horietan elementu halogenikoak. 1. Irudian ageri dira horien oinarrizko egiturak. Klorazio-mailak eta kloro-atomoek eraztun aromatikoetan duten kokapeneek dibenzoparadioxinapolikloratuen (PCDD) 75 kide eta dibenzofuranopoliklorauten (PCDF) 135 kide zehazten dituzte (EFSA, 2018). Dioxinak eta furanoak konposatu oso egonkorak dira tenperatura handitan, oso lipodisolbagarriak, hidrodisolbagaitzak eta biodegradatzan zailak (Gworek et al. 2013).



**1.Irudia.** a)Dioxina (PCDD) eta b) furanoen (PCDF) egitura kimikoa.

Ezaugarri fisiko-kimiko horiek direla eta, konposatu hauek izaki bizidunetan biometatzeko gaitasun handia daukate, batez ere gantz-ehunetan; beraz, elika-katean sartu eta metatu egiten dira (Jeno et al., 2021; Szajner et al., 2021). Hainbat industria-, errekuntza- eta errauste-prozesuren azpiproduktu gisa sortzen dira (Kaleka and Thind, 2020; Antunes et al., 2012; Domingo et al., 2000). Ingurumenean batez ere airearen bitartez barreiatzen dira eta gero kate trofikora sartzen dira. Lanaren ondorioz edo istripuz gertatzen diren esposizioak alde batera utzita, gizakiek dioxinekiko duten esposizio gehiena elikagaien bidez gertatzen da (Kogevinas et


al., 2000). Dioxinak arrasto mailan era askotako elikagaietan agertzen dira, bereziki animalia-jatorriko elikagaietan eta beste elikagai koipetsu batzuetan. Izan ere, kutsatzaile horien ekarpenaren edo esposizioaren % 90-95 baino gehiago elikaduraren bidezkoa da (ANSES, 2011; Gonzalez eta Domingo, 2021; Chmielewski et al. 2020; Llobet et al., 2003; Bergkvist et al., 2008).

Oso kantitate txikietan sortzen diren arren, horietako batzuen toxikotasunak, bereziki 2,3,7,8-TCDDrena, 70eko hamarkadaren hasieratik ingurumen-kutsatzaile garrantzitsu gisa tratatzea eragin du (IARC). Toxikotasunaren arrazoia "AhR" (Aromatic Hidrocarbons Receptor) hartzailearekin bat egiteko duen gaitasunean datza. Hartzaile horrek oinarrizko zeregina betetzen du xenobiotikoen deskodetzean, gene jakin batzuk arautuz, eta beste zelula-prozesu batzuk modulatzeko gai da, hala nola garapena, bereizketa, ugaritzea, erantzun immunea, minbiziaren sustapena eta apoptosisa (Okey et al., 1994). 2, 3, 7 eta 8 alboetako 4 posizioetan kloro-atomoak dituzten beste 16 konposatuek mekanismo bera erabiltzen dute, baina ez dira hain toxikoak, eta gainerakoek ez dute, antza, jarduera biologikorik (Mimura eta Fujii-Kuriyama, 2003).

### **1.2.2 Bifenilospolikloratuak**

PCBak COP sintetikoen familiaoak dira, elkarri loturiko bentzenozko bi eratzunez egituratuak, zeinetan hidrogeno atomo bat edo gehiago kloro atomoz ordezkatu daitekeen (2. Irudia). 209 kide desberdin daude, propietate toxikologikoen arabera 2 kategoriatan sailkatuak. Horietako 12k dioxinen antzeko propietate toxikologikoak dauzkate, eta beraz, "dioxina motako" PCBak (dl-PCB) esaten zaie edo "dioxina eragindunak" (*PCBs dioxin-like*, ingelesez). Beste PCBak ez daukate dioxina motako toxikotasun hori eta beste profil toxikologiko bat daukate (*PCB non dioxin-like*) (EFSA, 2018).

dl-PCB horien konfigurazioaren arabera, ez-orto-ordeztuak izan daitezke (PCB koplanarioak, orto-kokapenetan klororik gabeak, hots, 2,2 eta 6,6 atomoetan), edota mono-orto-ordeztuak (lau orto-kokapenetako batean kloro atomoa duen PCBa) (EFSA, 2018). Biek har dezakete konfigurazio planoa, AhR hargailura lotzen laguntzen diena, eta haien eraginak dioxinen eraginei gehitu. Beraz, konposatu horiek guztiekin osasunerako duten arriskua ebalutzeko, dioxina-jarduera duten PCBak dioxina eta furanoekin batera hartu behar ditugu, eta ez hala, dioxina-jarduerarik ez duten PCBak (ANSES, 2011).



## 2. Irudia. PCBen egitura kimikoa

PCBen kidekoak identifikatzeko, PCB siglak erabiltzen dira, kide bakoitzari esleituriko 209 zenbakietako bat duela ondoan.

PCB ez-orto-ordeztuak 77, 81, 126 eta 169 PCBak dira.

PCB mono-orto-ordeztuak 105, 114, 118, 123, 156, 157, 167 eta 187 PCBak dira.

*Non dioxin-like* PCBak, besteak beste, 28, 52, 101, 138, 153 eta 180 PCBak dira.

PCBak oso iraunkorrak dira eta elika-katean metatzen dira. Kloro-atomoen kopurua handitu ahala, egonkortasuna eta lipodisolbagarritasuna ere areagotu egiten dira, ondorioz, biometatzeko gaitasuna emendatuz (Szajner et al., 2021). 1930az gerontik, hainbat aplikaziotan erabili dira komertzialki, hala nola fluido dielektriko eta bero-trukagailu bezala transformadore eta kondentsadoreetan, eroankortasun elektriko txikia dutelako, eroankortasun termiko handia eta beroak eragindako degradazioarekiko erresistentzia handia (WHO, 1993). Gehigarri gisa ere erabili izan dira pestizida, pintura, plastikotzaile eta lubrifikatzialeetan (USEPA and Environment Canada, 1999; Erickson, 1997; Hutzinger et al. 1974). Gaur egun herrialde garatu ia guztietan dago debekatua bere ekoizpena, Spainian zehazki 1989an debekatu zen. Gainera, baldintza bereziak jarri dira dauden ekipoak erabiltzeko eta suntsitzeko. Zehazki, Stockholmoko Hitzarmenak 2025a jartzen du mugatzat, PCBak dauzkaten ekipoen likido-hondakinak suntsitzeko, adibidez, transformadore elektriko, erresistentzia, induktore, kondentsadore elektriko eta jariakin termoeroaledun ekipoetakoak.

### 1.2.3. Baliokidetasun toxikoaren faktoreak (TEF) eta baliokidetasun toxikoaren balioak (TEQ)

Dioxina-nahasketen toxikotasun osoa ebaluatzenko, "Baliokidetasun toxikoaren faktore" deiturikoak ezarri dira (TEF) (1.1. ERANSKINA). Horien bidez, dioxina ez hain toxikoak kide toxikoarenaren (2,3,7,8-TCDD) kopuru baliokide gisa adierazten dira, eta 1 balioa esleitzen zaio;

beraz, erreferentziatzat hartzen den konposatura izango da, gainerako dioxinen toxikotasuna zehazteko. Badira ekintza-mekanismo hori partekatzen duten beste konposatu batzuk ere (lehen esan bezala horien artean PCB batzuk), eta horientzat ere TEFak ezarri dira.

Dioxinen antzeko konposatuen toxikotasun globala baliokide toxikoetan (TEQ) adierazten da. Balio hori kide bakoitzen TEFa ( $TEF_{i,j}$ ) nahasketan duen kontzentrazioarekin biderkatzearen batukariarekin kalkulatzen da ( $C_{i,j}$ ), formula honen arabera:

$$TEQ = \sum (TEF_i PCDD^* C_i PCDD + TEF_j PCDD^* C_j PCDD + \dots)$$

TEQ metodoak soilik AhR zelula-hartzaileekin izandako elkarrekintzen ondoriozko erasana adierazten du, esaterako minbizia, eta ez ditu dioxinen eta dioxina motako konposatuen beste eragin toxikoak kuantifikatzen. Egungo legedi europarra Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) 2005ean ezarritako TEFetan (WHO-TEF) oinarritzen da (Van den Berg et al. 2006).

#### **1.2.4. Iturri sortzaileak**

PCDD/Fak eta PCBak nahi gabe askatzen dira ingurumenera, materia organikoa eta kloroa tartean diren hainbat prozesu termikoren bitartez, erabatekoa ez den erre kuntzaren edo erreakzio kimikoен ondorioz (Antunes et al., 2012; Domingo et al., 2000). Industria-iturrien kategoria batzuek arazte-sistema egokirik ez badute produktu kimikoak eratzeko eta ingurumenera askatzeko potentzial handia daukate. Iturri horien artean daude HHBI-ak, hondakin-uretatik datozen lohiak, zementu-labeetatik datozen hondakin arriskutsuak, paper-ekoizpena, metalurgia- eta elektrokimika-industria, prozesu termikoak (kobre, burdina, aluminioa eta zinka ekoiztea), galda industrialetako erregai fosilen erretzea, motordun ibilgailuak, errauskailuak etab.

#### **1.2.5 Dioxinak, PCBak eta elikadura**

Lehen esan bezala, dioxinak, furanoak eta PCBak elika-katean biometatu egiten dira; gizakien esposizioaren % 90 baino gehiago elikagaien bidez gertatzen da (González and Domingo, 2021; Chmielewski et al. 2020; WHO, 1989). Substantzia hauek, lipofiloak dira eta oro har gantz-maila handiko elikagaietan egoten dira (Gonzalez et al., 2019; Gasull et al., 2011; Patandin et al., 1999), baina ez dira barazki, fruta eta zerealetan egoten (Gasull et al., 2011).

EFSAk (2018) ezartzen du populazio orokorrean "Arrainak eta itsaskiak" direla ekarpen handiena egiten duten elikagaiak (% 30-75), ondoren, "Haragia eta haragi-produktuak" (% 9-34) eta "Esnea eta esnekiak" (% 7-25). Bestalde, dioxinekiko eta PCBekiko esposizioan kutsatzaile horiek sortzen dituzten iturri-inguruneetan tokiko ekoizpeneko elikagaiak hartzeak eragina izan dezake (Ochwanowska et al. 2019; Fierens et al., 2007). Behin irentsita, iraunkortasun eta lipodisolbagarritasun handia dutenez, gantz-ehunetan biometatzen dira, batez ere ehun adiposoan (Jeno et al., 2021; Szajner et al. 2021; Jiménez et al., 1996). Kalkuluen arabera, substantzia horiek organismoan daukaten batez besteko bitzitza 7 eta 11 urte artekoa izan daiteke (OME, 2007).

### 1.3 Osasunaren gaineko ondorioak

Dioxina motako konposatuak oso toxikoak dira gizakiarentzat, nonahikoak dira eta ingurumen-konpartimentu guztieta daude, dieta izanik herritarren esposizio-bide nagusia. Lanaren eraginpean ez dauden populazio orokorrak nolabaiteko oinarrizko dioxina-kontzentrazioa du organismoan, gorputz-karga izenekoa, PCDD/F eta dl-PCB oro har ingurumenean eta elikadura-kateetan egotearen ondoriozko hondo-esposizioaren ondorioz. Oro har, ez dago ebidentziarik gaur egungo hondoko esposizio normalak giza osasunean ondorioak dituenik (EFSA, 2018).

Minbiziaren Ikerketarako Nazioarteko Agentziak (IARC, ingelesezko adieran) 2,3,7,8-TCDD dioxina, 2,3,4,7,8-PeCDF furanoa eta dl-PCBak (77, 81, 105, 114, 118, 123, 126, 156, 157, 157, 167, 169, 189 PCBak) 1. taldearen barruan sailkatu ditu, hain zuen ere, gizakiarentzat kantzerigeno bezala (IARC, 2015). Konposatu horien ahalmen kantzerigenoa AhR hartziale zelularraren bidez adierazten da (Furue et al., 2021). Hartzaile hori gai da zenbait prozesu modulatzeko, hala nola garapena, bereizketa, zelulen ugaritzea, minbiziaren sustapena eta apoptosisa (Okey et al., 1994). Dioxinen eta erlazionatutako konposatuen kontzentrazio handiekiko esposizioaren ondoriozko patologiaren zati handi bat bi kutsadura-gertakariren ondorioz ezagutzen da, non, biztanleriak substantzia horien kantitate handiak jasan zituen. Horietako bat Seveson (Italia) gertatu zen 1976an (Eskenazi et al., 2018) eta bestea Yushon (Japonia) 1968an (Furue et al., 2021). Bi gertakari horietan, eraginpean hartutako biztanleriak hainbat sintoma izan zituen, hala nola larruazalaren alterazioak (kloraknea), funtziointerakzioen eta hepatikoaren alterazioak, jaiotza-inguruko anomaliamiak, nerbio-sistemaren,

sistema endokrinoaren eta ugalketa-funtzioaren alterazioak. Gainera, populazio horrek minbiziak eragindako hilkortasun-arrisku handiagoa ere izan zuen (Furue et al., 2021).

Esposizio kronikoari dagokionez, Biogipuzkoako ingurumen-epidemiologiako eta haurren garapeneko taldeak 2018an egindako *"Actualización de la evidencia científica: posibles efectos en la salud por las emisiones de las plantas de valorización energética e incineradoras"* txostenak, erraustegien emisioek osasunean dituzten ondorioei buruzko ebidentzia zientifikoa berrikusten du. Txosten honek Porta et al. (2009) (21 artikulu) eta Mattiello et al. (2013) (31 artikulu) autoreen berrikuspenak hartzen ditu oinarri gisa, eta 2018ko abendura arte argitaratutako 13 artikulu gehiago gehitzen dira, berrikuspen horietan aipatu ez direnak. Txosten horrek errauskailuen isuriek osasunean dituzten eraginei dagokienez ondorioztatzen du, eskuragarri dauden azterlan epidemiologikoek ebidentzia mugatua erakusten dutela zati bigunen sarkomarako, akats orofazialetarako eta akats genitourinarioetarako, eta ez dagoela ebidentziarik gainerako gaixotasunetarako edo bestelako minbizietarako. Aipatu behar da ebidentzia mugatua errauskailu zaharrei buruz egindako ikerketetan oinarritzen dela batez ere, egungo erraustegiek baino emisio-maila handiagoak baitzituzten (Bena et al., 2019; Zhang, 2021). Hala ere, berrikuspen sistematikoko azterlan berrienek ez dute aurkitu minbizia sortzeko eta osasunean beste ondorio batzuk izateko ebidentzia zientifikorik (Mattiello et al., 2013 edo Porta et al., 2009).

Metal astunekiko esposizio akutuari dagokionez, efektu neurologiko, hematologiko eta nefritikoak direla eta metalik kezkagarrienak Hg eta Pb-a dira (Boskabady et al. 2018; Järup, 2003). Oro har, intoxikazio mota horiek lan-ingurunean gertatzen dira (Tait et al., 2020), baina dioxinetan bezala, literatura zientifikoak esposizio akutuarekin lotutako gertakari batzuk aipatzen ditu. Aipagarrienetako bat Minamata (Japonia) pozotze masiboa izan zen, 1950eko hamarkadan, enpresa kimiko batek Minamatakoko badian egindako merkurio ez-organikoaren eta metil merkurioaren isurketak eragindakoa. Badian harrapatutako arrainez eta itsaskiz elikatzen ziren inguruko gutxienez 50.000 egoiliarrek nolabaiteko kalteak izan zituzten, eta Minamata gaixotasunaren 2.000 kasu baino gehiago egiaztatu ziren, 1950eko hamarkadan goia jo zuena, gaixotasun larriak zituzten gaixoekin, garuneko lesioak, paralisiak, hitz egite inkoherentziak eta delirio-egoerak jota (Yorifuji, 2020).

Esposizio kronikoari dagokionez, Cr eta Cd-a dira hiri-hondakinen erraustegiek askatzen dituzten metal kezkagarrienak, IARC-ek kantzerigeno gisa sailkatzen baititu. Campo eta kolaboratzaileek 2019an egindako berrikuspen sistematikoak azken 30 urteetan erraustegiek

## 2. ildoa: Kutsatzaileekiko esposizioa ebaluatzea, biomarkatzaileen analisitik abiatuta

osasunean izan duten eragina eta esposizioa aztertzen ditu. Metalei dagokienez, Pb eta Cd metalak izan ziren gehien aztertu zirenak, eta, ondoren, Hg, Mn, Ni eta Cr-a. Beste metal batzuk ere aztertu ziren: Cu, Zn, Sn, Tl, Be, As eta V. Bi azterlanek hurbileko biztanleriaren mailen eta erraustegien isurketen arteko erlazioa aurkitu zuten (Lee et al., 2012; Deng et al., 2016; Li et al., 2017), baina 5 azterlanetan ez zen erlaziorik aurkitu (Osius et al., 1999; Nadal et al., 2005; Reis et al., 2007a, 2007b, 2007c; Schroijen et al., 2008; Ferre-Huguet et al., 2009; Martorell et al., 2015; Gatti et al., 2017). Azterlan batek azpimarratzen du errauskailuetatik gertu dauden eremuetan landatutako elikagaiak kontsumitzent dituzten egoiliarrentzat metalen eraginpean egoteko dieta bide garrantzitsua dela (Deng et al. 2016; Li et al. 2017). Lee eta kolaboratzaileek Seulen egindako ikerketan (2012) lotura positiboa aurkitu zuten odoeko Pb eta Cd mailen eta bizileku-denboraren artean. Gainera, erraustegiak urte batzuetan jardunean egon ondoren neurtutako mailak hasierako mailekin alderatzen direnean beheranzko joera ikusten da (Nadal et al. 2005; Reis et al. 2007a, 2007b, 2007c; Ferr e-Huguet et al. 2009; Martorell et al. 2015; González et al. 2000). Oro har, emaitzek iradokitzen dute errauskailu modernoetatik gertu bizi den biztanleria orokorraren mailak erreferentziazko balioen maila berean daudela azterketa gehienetan, eta isurketek barne-dosian duten inpaktu nulua edo oso txikia erakusten dutela.

## 2. HELBURUAK

Azter-ildo honen helburua kutsatzaileen mailen (dioxina-furanoak, PCBak eta aztarna-elementuak) zaintza epidemiologikoa egitea izan da, hiru eremutako populazioaren odol- eta gernu-laginetan. Horietako bat, instalazioaren isurien eraginpean dago, barreiatze-eredutik definitua (Lasarte-Zubieta-Usurbil); bestea, tartekotzat hartua (Andoain), eta, hirugarrena, kontrol-eremua, aztertu beharrekotik urrun dagoena (Ordizia-Beasain). Lortutako mailak Gipuzkoako Ingurumen Gunearren parte den Energia Balorizazioko Instalazioa (GIGEBI) martxan jarri aurreko mailekin alderatu dira.

Azterlan hau Euskadiko Ikerketa Medikoko Batzorde Etikoak onartua da (2.1 ERANSKINA).

### 3. METODOAK

#### 3.1 Aztertutako populazioa

Aldez aurreko azterlan epidemiologikoaren (2017/11-HH-ZE) diseinua errespetatu da. Populazio hauxe aztertu zen: Donostiako Zubieta auzoan bizi zirenak eta Usurbil, Zubieta eta Lasartekoak (eraginpeko eremua), Andoingoak (tarteko eremua), Beasain eta Ordiziakoak (kontrol-eremua). Guztira 231 partaide errekrutatu ziren, udalerrika banatuak:

**1. Taula.** Azterzeko populazioaren udalerriak

Populazioa	Jasotako laginak	Betetako galdetegiak
<b>Usurbil</b>	40	40
<b>Lasarte-Oria</b>	40	39
<b>Andoain</b>	41	41
<b>Ordizia</b>	51	51
<b>Beasain</b>	59	55
<b>TOTAL</b>	231	226

#### 3.2 Errekutatze-fasea

2021aren erdialdean, aurreko azterlanaren (2017/11-HH-ZE) parte-hartzaleekin harremanetan jarri ginen, bai Gipuzkoako Foru Aldunditik bidalitako gutunen bidez, bai Biogipuzkoa Olltik egindako telefono-deiaren bidez, azterketaren bigarren aldia parte hartu zutela berresteko eta bidalitako dokumentazioa behar bezala jaso zutela egiaztatzeko. Baiezko erantzunen kasuan, baimen informatuak jaso eta lagin biologikoak biltzeko eta ondoren Euskal Biobankuan biltegiratzeko, beharrezko galdetegieei buruzko dokumentazioa bidali zitzaien.

Era berean, azterlanaren udalerriei erroldak eskatu zitzaizkien, lehenengo aldia parte hartu baina azterlanaren bigarren aldi honetan parte hartzeari uko egin zutenen bajak beteko zituzten parte-hartzale berriak biltzeko, eta horrela, azterketaren lehen aldia parte hartu zuten parte-hartzale guztiak (228 subjektu) osatzeko. Lasarte-Oriako eta Ordiziako udalek erroldak eskatutako datuekin bidali zituzten, eta Usurbil, Andoain eta Beasaingo udalek berriz, erroldaren ausazko azpilagin baten datuak eman zituzten. Lasarte-Oriako eta Ordiziako parte-hartzale

berriak telefonoz kontaktatu ziren Biogipuzkoa Olltik. Usurbilen, Andoainen eta Beasainen, ordea, gutun bat bidali zen, azterlanaren berri emateko eta parte hartza eskatzea. Parte-hartzaileak ausazko laginketa bidez hautatu ziren. Laginketa-metodo honek parte-hartzaileak biztanleria orokorraren adierazgarri izatea bermatzen du. Ausazko laginketa sexuaren arabera estratifikatu zen eta 18 eta 70 urte bitarteko adin-tartera mugatu zen.

Ikerketa taldeko langileek telefonoz deitu zieten partaide izateko prest agertu zirenei, azterlana berriro azaltzeko, eta ondorengo irizpideren bat betetzen zutenei eezkoa emateko:

- Udalerrian 5 urte baino gutxiago bizi izana
- Haurdun egotea
- Enpresa hauetakoren bateko ekoizpen-prozesuan lan egin izana (azken

15 urtean):

- edozein erraustegi
- zentral termikoa
- siderurgia (altzairutegiak-galdategia-koketegia)
- kloroaren ekoizpen elektrokimikoa
- sugar-motelgailuen ekoizpena (produktu bromatuak izan ohi dira)
- industria petrokimikoa
- paper-zuritzea
- Giltzurrun eta gibeleko patologiaren diagnostikoa
- Patologia larriren bat tratatzen aritza

Irizpideak betetzen ez zitzuten partaideak baztertu eta gero, parte hartu nahi zutenei hitzordua eman zitzaien beren udaleko osasun-zentroan lagin biologikoak hartzeko eta galdetegia betetzeko.

Errekrutatzean gizon eta emakumeen eta adin-tarteen proportzioa zaindu zen, populazio osoaren lagin adierazgarri bat jasotzeko.

### 3.3 Aldagai sozioekonomikoaren eta dietaren berri jasotzea

Partaide guziek, bostek izan ezik (226 parte-hartzailek guztira), bete zuten aldagai sozioekonomikoei eta dietari buruzko galdetegia (2.2 ERANSKINA). Galdetegi horretan 15 galdera sartu ziren, aldagai garrantzitsuei buruzkoak: sexua, adina, ikasketa-maila, lana, alkohol eta tabako kontsumoa eta seme-alaba kopurua. Dietari buruzko galdetegiak 101 elikagai-

motaren kontsumo-maiztasunari buruzko informazioa jasotzen zuen, baita tokiko produktuen kontsumoari buruzkoa ere.

### **3.4 Lagin biologikoak bildu, jaso eta gordetzea**

Odolaren jasotzea eta gernuaren bilketa azterlaneko partaideak bizi ziren herriko osasun-zentroan egin zen 2021eko urriaren 5etik 2022ko maiatzaren 9a bitarte. Horretarako, ikerketa taldea harremanetan jarri zen Donostialdeko, Goierriko eta Tolosaldeko erakunde sanitario integratuetako (OSI) arduradunekin, azterlanaren berri eman eta haien lagunza eskatzeko. Osasun-zentroetako erizainekin batera, hitzorduetarako egutegiak jarri ziren, langileek odola atera eta gernu-laginak biltzeko.

Partaide bakoitzak 60 ml inguru odol eman zituen seruma ateratzeko, eta beste 5 ml inguru, gerora beruna zehazteko. Laginak 20 min zentrifugatu ziren giro-tenperaturan eta 2500 rpm-an, eta Euskal Biobankura eraman ziren, Biogipuzkoan kokatua. Euskal Biobankuan lagin biologikoak alikuotatu eta -80°C-tan gorde ziren, atera eta hurrengo 90 minuturen buruan, laborategietara bidaltzen ziren arte. Odola biltzeko, seruma bereizteko eta biltegiratzeko eta garraiatzeko prozesuak erreferentziazko laborategiak ezarritako baldintzetan egin ziren. Zehazki, alikuota hauek jaso ziren:

#### Seruma

- 1 serum-alikuota, 3mL-koa, metalak analizatzeko
- 1 serum-alikuota, 30 mL-koa, dioxinak/furanoak eta PCBak analizatzeko
- 1 alikuota, 1 mL-koa metalak serumean analizatzeko

#### Guztizko odola

- 1 alikuota, 1mL-koa, metalak analizatzeko

#### Gernua

- 1 alikuota, 10 mL-koa, metalak eta kreatinina analizatzeko
- 3 alikuota, 1 mL-koa\*

#### Plasma

- 1 alikuota, 1 mL-koa\*

### Buffy-coat

- 1 alikuota, 1 mL-koia (batez ere globulu zuriak eta plaketak)\*

\* alikuota “extra” horien erabilgarritasunari esker, konposatu berrien zehaztapenak egin daitezke, biztanleriaren zaintza epidemiologikoa hobetzeko.

## 3.5 Zehaztapen analitikoak

### **3.5.1 Dioxinak, furanoak eta PCBak**

Zehaztapenak IDAE-CSICeko Dioxinen Laborategian egin ziren. 231 partaideren serum-laginetan konposatu hauek neurtu dira: 2,3,7,8-TCDD; 1,2,3,7,8-PeCDD; 1,2,3,4,7,8-HxCDD; 1,2,3,6,7,8-HxCDD; 1,2,3,7,8,9-HxCDD; 1,2,3,4,6,7,8-HpCDD; OCDD; 2,3,7,8-TCDF; 1,2,3,7,8-PeCDF; 2,3,4,7,8-PeCDF; 1,2,3,4,7,8-HxCDF; 1,2,3,6,7,8-HxCDF; 2,3,4,6,7,8-HxCDF; 1,2,3,7,8,9-HxCDF; 1,2,3,4,6,7,8-HpCDF; 1,2,3,4,7,8,9-HpCDF; OCDF; PCB-77; PCB-81; PCB-126; PCB-169; PCB-105; PCB-114; PCB-118; PCB-123; PCB-156; PCB-157; PCB-167 eta PCB-189.

30 ml inguru serum aberastu egin zen dioxinen eta PCBen nahasketa estandar batekin eta honela markatu:  $^{13}\text{C}_{12}$ . Gero, matrizetik analitoak erauzi ziren, fase solidoko erauzketa bidez (SPE), C<sub>18</sub> (SPEKartutxoak - C18; ISOLUTE, Charlotte, NC, AEB) kartutxoak erabilita. Eluzioa n-hexanoarekin egin zen. Osagai organikoak, gantza eta beste substantzia eragozle batzuk kendu egin ziren, hexano erauzkinak azido sulfurikoz eraldatutako (%44) silize-gelez tratatuta (Supelco, Bellefonte, PA, AEB). Erauzkinak, gainera, adsortzio solido-likidozko kromatografia bidez garbitu ziren; silize geruza anizkoitza, oinarrizko alumina eta karbono aktibozko adsorbatzaileak erabiliz egindako kromatografia. Erauzkin purifikatuak errotazio bidez kontzentratu ziren, bialetan transferitu eta lehorrean kontzentratu ziren, nitrogenozko korronte arinarekin, masa-espektrometria egin aurretik. Errekuperazio-tasak ebaluatzen, azken erauzkinak berrosatu egin ziren PCDD/F-en (EPA-1613ISS, Wellington Laboratoires Inc., Guelph, Kanada), dl-PCBen (WP-ISS, Wellington Laboratories Inc, Guelph, Kanada) eta PCBen (MBP-118, Wellington Laboratories Inc, Guelph, Kanada) nahasketa-kopuru jakin batekin, eta honela markatu:  $^{13}\text{C}_{12}$ . Analisi instrumentala egiteko, bereizmen handiko masa-espektrometroari erantsitako bereizmen handiko gas-epektrometroa erabili zen (HRGC-HRMS). Analisiak egiteko, Agilent gas-kromatografoa (Agilent Technologies, Palo Alto, CA, AEB), bereizmen handiko masa-espektrometroari erantsita: AutoSpec Premier (Waters, Manchester, Erresuma Batua), 10.000ko erresoluzio-gaitasunduna (behe-definizioaren % 10). Gasen bereizketa kromatografikoa silize

